



EBAZPENA, JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEA ARAUTZEKO ARAU-XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO

Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 158. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egokitzen du arau-xedapen orokor bat egitea Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzeko,.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen du, xedapen arauemailearen proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez. Bertan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde ordezkagarrienen iritzia jasoko da.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. Artikulua hau arautzen du:

Kontsultak honako alderdi hauek aipatu behar ditu:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Hori dela eta, xedapen arauemailea egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da. Horrela, ekarpenak egingo dituzte arauak eragiten dien herritarrek eta gainerako erakundeek, eta aukera izango dute proposatzen den arauan parte hartzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Prestatu aurretik, kontsulta publikoaren izapidea egitea arau-xedapen orokor baten proiektuari, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legea garatuz.



Bigarrena.- Ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritziak helarazi ahal dituzte herritarrek eta erakundeek. Horretarako, hamabost egun balioduneko epea dute, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorka Iturriaga Madariaga

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria



ERANSKINA

<p>Arauren aurrekariak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 310/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duena. - 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoarena eta kirolarena (aurrerantzean, 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa).
<p>Konpondu nahi diren arazoak</p>	<p>Indarrean dagoen urriaren 18ko 310/2005 Dekretua, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duena, duela 21 urte onartu zen, Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean oinarrituta. Lege hori indargabetu egin du indarrean dagoen martxoaren 30eko 2/2023 Legeak, zeinak Kirol Justiziako Euskal Batzordea ere arautzen baitu Legearen XV. tituluko II. kapituluan.</p> <p>Martxoaren 30eko 2/2023 Legeak aldaketa batzuk jasotzen ditu, hala nola Batzordearen eskumenen idazketa berria, osoko bilkurako eta ataletako funtzionamendu organikoa ezabatzea, kideak izendatzeko baldintzak, edo osaera orekatua izateko betebeharra, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoa.</p> <p>Era berean, kontuan izan behar da Kirol Justiziako Euskal Batzordeak jarraitu beharreko administrazio-prozedurari aplikatu beharreko esparruan izandako eraldaketa juridikoa. Urriaren 18ko 310/2005 Dekretua onartu ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea onartu ziren.</p> <p>Azkenik, aipatu behar da urriaren 18ko 310/2005 Dekretua onartu ondoren onartu zela ekainaren 21eko 12/2012 Legea, Kiroleko Dopinaren aurkakoa. 37. artikulua xedatu zuenez, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari dagokio, administrazio-istantzia bakarrean, aipatutako legearen aginduak ez betetzeagatik egin behar diren eta kirol-federazioetako eta antzeko eginkizunak dituzten erakundeetako zuzendaritza-langileei eragiten dieten diziplina-espedienteak izapidetzea eta ebaztea. Xedapen</p>



	<p>horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan kirolaren arloan indarrean dagoen ordenamendu juridikoan eta hura garatzeko araudian ezarritako arauen arabera bideratuko da prozedura.</p>
<p>Araua onartzeko beharra eta egokitasuna</p>	<p>Dekretu berria nahitaez egokitu behar da aipatutako xedapenetan egindako aldaketetara (martxoaren 30eko 2/2023 Legea, urriaren 1eko 39/2015 Legea, urriaren 1eko 40/2015 Legea eta ekainaren 21eko 12/2012 Legea, besteak beste), eta, gainera, konpondu behar ditu indarrean dagoen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren gabezia eta hutsune batzuk.</p> <p>Kirol Justiziako Euskal Batzordeari buruzko dekretu berria Eusko Jaurlaritzaren Urteko Araugintza Planean dago, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baitzen 2026ko martxoaren 2an..</p>
<p>Arauren helburuak</p>	<p>Arauren helburua da Kirol Justiziako Euskal Batzordeari erregulazio berri bat ematea, martxoaren 30eko 2/2023 Legea egokituko dena, indarrean dagoen bitartean sortutako zalantzak argitu dituen, eta indarrean dagoen dekretua aplikatzean sortutako arazoak konponduko dituzten aurreikuspenak jasoko dituen. Era berean, testua hizkera ez-sexistari buruz indarrean dauden irizpideetara egokitzeko aukera bat da, haren funtzionamendua modernizatzeko eta abar.</p> <p>Zehazki, dekretu berriak indarrean dagoen dekretuaren gai berberak arautu nahi ditu, batez ere:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Izaera. 2) Eskumenak. 3) Osaera. 4) Izendapena, etendura eta kargu-uztea. 5) Agintaldia. 6) Eskubideak eta betebeharrak. 7) Antolaketa. 8) Prozedurak izapidetzea. 9) Akordioak berrikusteko araubidea. <p>Eduki horiei erregulazio osoagoa gehituko zaie kide anitzeko organoko kideak kargutik kentzeko eta ordezkatzeko arrazoiei buruz, ebazteko gehieneko epeei buruz, administrazio-isiltasunaren araubideari buruz, izapidetze elektronikoari buruz, kautelazko neurriei buruz, dopin-arloko diziplina-prozeduren berezitasunei buruz, eta abar.</p>



**Egon daitezkeen konponbide
alternatibo erregulatzailerak
eta ez-erregulatzailerak**

Arau-proiektua egitea Administrazioak egin beharreko lana da, eta horretara behartuta dago, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen erregelamendu-garapenean baitu jatorria eta justifikazioa.

Martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 158. artikulua honako hau ezartzen du: *“Lege hau garatzeko erregelamendu-xedapenek zehaztuko dituzte Kirol Justiziako Euskal Batzordearen osaera eta funtzionamendua”*.

Era berean, ezin da alde batera utzi Justiziako Euskal Batzordea gaur egun urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak arautzen duela, eta, beraz, dekretu berri bat behar da aipatutako xedapena ordeztzeko.

Ondorioz, ez dago beste aukerarik aldez aurreko kontsulta publikoaren xede den Dekretua onartzen ez bada.